

Uztailak 12, asteazkena

→ 19:00 - 21:00.  

Atrezzo lantegia birziklatutako materialekin

Gaurkoan photocall bat izanen dugu Gazte Eremuan, eta material birziklatuekin egin daitezkeen gauzak ezagutzeko aprobeztatuko dugu.

→ 19:00 - 20:00.

Zunba eskola eta erakustaldia

Gorputza mugitzeko prest? Azken arrakasten erritmoan ariketa fisikoa eginez izerdituko gara. Aprobeztatu Zunba Masterclassa.

→ 19:00 - 21:00.  

Puzgarriak

Gaur uraren eguna dugu, eta horretarako honako atrakzio hauek izanen ditugu: irristagarri bikoitza eta lau aqua splash jolas: komuna, tankea, zizarea eta euritakoa.

→ 19:00 - 20:30.  

Photocall-a

Egun horretan Gazte Eremura bertaratzen direnendako photocall-a izanen dugu, argazki dibertigarrienak ateratzeko, eta, bertan, are gehiago animatzeko, atrezzoak izanen dute eskura.

→ 21:00 - 23:30.  

Original Sistah DJa

Emakume DJ gazte hau bere tokia egiten ari da Iruñeko panoraman bere askotariko abestiekin eta bere egungo irudiarekin.

Uztailak 13, osteguna

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Gaur honako puzgarri hauek daude: mugimendu mekanikodun gladiadoreen puzgarria, tiragoma bikoitz erraldoia, Wipeout puzgarri erraldoia eta punteriako eta trebetasunezko lau jolas-puzgarri (3).

→ 19:00 - 20:30.  

Dekoratu zure zapia lantegia

Festetako zapiak apainduko ditugu 2023ko sanferminen oroitzapen gisa gordetzeko.

→ 19:30 - 20:30. 

Afrodance animazioa

Animazioa Baobab akademiaren eskutik, non Afrikako hainbat tokitako dantzak erakutsiko baitzizkigute gure gorputz osoa askatu eta danbor urrunez gozatzeko.

→ 20:30 - 22:30.  

Mini-jaialdia

Mini-jaialdian Iruñeko panoramako bi talde gazte izanen ditugu, zeinekin gustura dantza egiteko aukera izanen baituzu: Nakama Planet eta Zazu.

Uztailak 14, ostirala

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Gaur, 3vs3 Kantxa-barrutia (futbola + saskibaloia (3)), giza-futbolina, erraztatzailea eta makila harrapatu trebezia-jokoa (3).

→ 19:00 - 20:30.  

Zezensuzko lantegia

Azken egunean zezensuzkoak eraikiko ditugu, buruhandi gisa eramateko eta gauean musikaren erritmoan distira egiteko.

→ 19:00 - 21:00. 

Ginkana vs ihes-jokoa

Ginkana bezalako klasiko bat ihes-jokoen joeraren aurka. Zer gertatzen da uztartzen baditugu?

Probaz beteriko borroka bat proposatzen dugu, non adimena, bizkortasuna eta azkartasuna neurtuko baitira. Anima zaitez eta gainditu erronkak.

→ 21:00. 

Zezensuzkoak

Su hotzeko zuziekin apainduko dugu zezensuzkoa entzierro bat egiteko.

→ 21:30 - 22:30.  

Josu González DJa

DJ ospetsu honek helburu bakarra du: bere saioak oroitzeko modukoak izatea, bere lana ahaztezin bihurtuz.

Gazte Eremua

PUNTU-SEGURUA: GOZATU BURUA GALDU GABE

UZTAILAK 8 ETA 9

EGAN elkarte. Sexualitatea, sexu-orientazioa eta LGTBI+ eskubideak.

UZTAILAK 10 ETA 11

PICA elkarte. Bullyinga eta tratu txarrak. Motorzaleek eta gai horrekin harremana duten pertsonak osatutako elkarte da, eta arazo horiengatik kaltetutako pertsonak laguntzen dituzte orientazioa aurrez-aurre emanez.

UZTAILAK 12 ETA 13

ANTOX elkarte. Substantziekiko eta teknologiekiko adikzioak.

UZTAILAK 14

APOYO MUTUO elkarte. Kanean bizi diren gazteekin lan egiten du, gizarteratzeko aukerak eskainiz. Gazteak bertaratuko dira bere esperientziari buruz eta bazterkeriako egoeretatik ateratzeko dauden baliabideei buruz hitz egiteko.

EGUNERO MANKOMUNITATEKO URAREN TABERNA EGONEN DA.

ALKOHOLIK GABEKO KOKTELAK ETA EDARIAK SALTZEKO BARRA.

Gazte Eremua

▼ #SanferminesPamplona

→ Uztailaren 7tik 14ra

Konstituzio plaza
(Baluarte)



→ Kontsultatu hemen
programazio osoa



Uztailak 7, ostirala


→ 19:00. 

Gazte Eremuaren Irekiera

Agertoki gainean eguneko programazioa aurkeztuko da eta oso txupinazo berezia egingen da, suziririk gabe baina kolore eta serpentina ugarirekin; gainera, Medhi DJa ere bertan izanen da.

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Giza futbolina, Wipeout puzgarria, erraztatzailea eta tiragoma  egonen dira. Puzgarrietako langileak arduratuko dira denborak eta edukiera kudeatzeaz.

→ 19:30 - 20:30. 

Neon makillajeko lantegia

Aurretik dugun gau handirako prestatuko gara lantegi argitsu honen bidez.

→ 20:30. 

Bocabeats-en emanaldia

Bikote hori ikusteko aukera izanen dugu beste behin ikuskizun berri batekin, zeinetan berriz ere umorea eta musika uztartuko baitituzte, hitzekin eta beat box soinuekin jolastuz.

→ 21:30 - 22:30. 


Artistas del gremio txaranga

Txaranga baino gauza tipikoagorik ez dago sanferminetan, eta bere eszenaratze zoragarriagatik nazioartean ezaguna den txaranga hau bezalakorik ere ez da.

Uztailak 8, larunbata

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Gaur honako atrakzio hauek izanen ditugu: Loomping bikes, Jaurtimetro-atea , trebetasunezko lau jolas-puzgarri eta apar-festa handia.

→ 19:00 - 20:30. 

Hip-hop erakustaldia

TXFitness hip-hop taldeko dantzarien erakustaldia (lehiaketako gazteen kategoria). Ondoren, masterclassa irakaslearen eskutik, bertaratu diren guztiendako.

→ 19:30 - 21:00.  

Eskumuturrekoen eta aerografoz egindako tatuajeen lantegia

Festetan beti egiten dira lagun berriak eta onena opari on bat edo oroitzapen partekatu bat izatea da: tatuaje bat edo gaur etorri direnek egindako eskumuturreko bat.

→ 20:30 - 21:15. 

Apar-festa

→ 21:00 - 22:30. 

Txurru DJa

DJ gazte honek dagoeneko erakutsi du bere balioa dantza-pistetan eta inork ezinen dio dantzatzeko gogoari eutsi bere erritmoak entzutean.

↑
TOP



Uztailak 9, igandea


→ 19:00 - 20:30.  

Sare sozialei buruzko lantegia

Sare sozialei buruzko lantegian profilak animatzeko istorio eta ireel hobekak argitaratzen ikasiko dugu, eta argitalpenen norainokoa eta sareak erabiltzeko orduan dugun erantzukizuna ezagutuko ditugu.

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Gaur honako puzgarri hauek izanen ditugu: Olatua txirrista handia, 3vs3 kantxa barrutia (saskibaloia  + futbola), Humor amarilloko mugimendu mekanikodun gladiadoreak.

→ 20:30 - 21:30. 

Break dance lantegia

Team Rockets breakaren panoraman urteak daramatzen Nafarroako taldea da, eta oraingo honetan, erakustaldi bat egiteaz gain, gazteekin elkartuko dira lantegi baten bidez.

→ 21:30 - 22:30. 

Erel & Kuñiren kontzertua

Rapero gazteen bikote honek urte batzuk daramatza agertokietan barna, eta nabarmentzekoak dira bere letren freskotasuna eta gazteei eragiten dieten arazo eta emozioei buruz hitz egiteko duten modua.



Uztailak 10, astelehena

→ 19:00 - 20:30.

Kuadrillen eguna: puzgarriak eta herri kirolak

Aldez aurretik izena emanda, kuadrillak elkarren artean lehiatuko dira herri-kirolekin eta puzgarriekin lotutako jokoen bidez.

Erraztatze bikoitzeko puzgarriak, Wipe Out puzgarria 4 probekin, Jaurtimetro-atea eta Pista Amerikar puzgarri erraldoia.

→ 19:30 - 21:00.  

Magia gertutik

Patxi magoa kuadrillen artean ibiliko da egun honetan, dena ez dela dirudiena eta ezer ez dela dirudien bezain sinplea erakusteko.

→ 20:30 - 21:00. 

Karaokea

Zer hoberik kuadrillen egunean taldean betiko abestiak eta azkeneko arrakastak abestea baino. Gutxien axola duena intonazioa da, garrantzitsuena ongi pasatzea da.

→ 21:30 - 22:30. 

María López DJa

Musika, Nafarroako emakume DJ ospetsu honen eskutik, zeina egun hiriko erdiguneko aretoetako batean aritzen baita. Gaurkoan bere ohiko postua utziko du arrakasta berrienak Gazte Eremura ekartzeko.



Uztailak 11, asteartea


→ 19:00 - 20:00.

Parkour lantegia, Riart Companyren eskutik

Lantegia eta erakustaldia hainbat diziplina artistikoren arteko elkarrekintzaren alde, hala nola hiri-dantza, parkourra eta dantza garaikidea, lan egiten duen talde gazte honen eskutik.

→ 19:00 - 21:00. 

Puzgarriak

Gaurkoan honako hauek izanen ditugu: zezen mekanikoa, harrapatu makila trebezia-jokoa , eta Bumper Bolak perimetro puzgarriarekin.

→ 19:00 - 21:00.  

Aurpegia margotzeko lantegia

Nork dio makillajea ez dela mutil eta neskendako? Gaur imaginazioarekin eta sormenarekin zer egiten ahal den erakutsiko dugu.

→ 20:00 - 21:00.  

Fusio musika

Mario Oroz saxofoi-jotzaile gazteak bere artea DJ baten musika modernoarekin uztartuko du.

→ 21:00 - 22:30. 

On The Road ikuskizuna

Ikuskizun honek musika zein gozamina eskainiko dizkigu; agertokia arazorik gabe menderatzen duten musikari profesionalak. Estilo guztietako abestiak entzuleekin batera kantatzeko.